



AINHIZE BELAR ESKALADAREN GAILURREAN

Eskalatzaile atxondarrak 'Iñi Ameriketan' (9a+) bidea igo du, 18 urte gaz. Zailtasun gradu horretako bide bat kateatzen duen bigarren euskal emakumea da, Josune Bereziarturen ondoren / 21

Ainhize Belar Baltzolan, 'Iñi Ameriketan' bidean.

@HYPERAITZ

Mobilizazioa Durangaldean mediku falta salatzeko, irailaren 19an

Mobilizaziora deitu dute Berrizen, Zaldibarren eta Abadiñon azken hileetan duten mediku falta dela eta / 6



ANBOTOk zuzenean emango du Sorginen Lasterketa zapatu goizean, 'anboto.org' webgunean / 20



"Izugarri gustatuko litzaidake Andra Mariko elizpea aztertzea" / 2-3

LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLO BAT EGIN NAHI DUZU?

ELIKAGAIEN INDUSTRIAK
SOLDADURA
MANTENTZEA
ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK

INFORMATIKA
MEKANIZATUA
ELEKTRIZITATEA
ROBOTIKA



Deitu eta informatu!!

94 616 90 02
info@leartik.eus





Ricardo Mar arkeologoa, Meridako zubi erromatarraren aurrean. RICARDO MAR

"Andra Mariko elizpea behar den beste denbora hartuta ikertu gura nuke"

Ricardo Mar Medina (Durango, 1959) Tarragonako (Herrialde Katalanak) Rovira i Virgili Unibertsitateko arkeologia irakaslea da. Munduko hainbat bazterretan egin ditu arkeologia ikerketak. Besteak beste, Cuscon, Berlinen, Tarragonan eta Erroman

Ekaitz Herrera ARKEOLOGIA

Garai bateko *La Exquisita* gozotegiaren gaineko etxe batean jaio zen, baina Ezkurdi parkearen ondoko etxebizitza batean igaro zuen haurtzaroa. Bartzelona du bizileku, han bizi da eta hamazazpi urtegar arkitektura ikastera joan zenetik. Edozelan ere, ez ditu bere zuztarrak inondik inora galdu. Bere sorterrari buruz berba egitean, maitasun berbak baino ez ditu. Ahal duen aldiro bueltatzen da Durangora, eta ez du sorterrian ikerketa arkeologiko bat lantzea baztertzen.

Eta hara non, durangar bat Tarragonako Unibertsitatean arkeologia irakasle.

Istorio luzea da. 1976an, 17 urte nituela, arkitektura ikasteko erabakia hartu nuen. Donostia-ko arkitektura fakultatea oraindino sortu barik zegoenez, Ma-

dril, Valladolid eta Bartzelona nituen aukeran, eta azken horretara joatea erabaki nuen. Horri eskerrak, Mediterraneo ezagutu nuen, eta hiriak Italia-
ra bidaiatzeko aukera ere eskaini zidan. Horri guzti horri gehitu behar zaio Durangon bizi nintzenez sarritan joaten nintzela mendira, Urkiola aldera, espeleologia egitera. Eta Bartzelonara lekualdatu nintzenez, hango espeleologia talde bategaz hasi nintzen hartu-emanetan. Talde honi eskerrak, arkeologoak

"GURE BIZILEKUEN IRAGANAZ JABETZEAK PROZESU HISTORIKO BATEN EMAITZA GARELA IKUSARAZTEN DIGU"

ezagutu nituen, indusketetan parte hartzen hasi nintzen, arkeologia ikastaro bat egin nuen Empúries hirian (Girona), eta Bartzelonako Diputazioarentzat hasi nintzen beharrea. Erroman eta Berlinen lanean ibili eta gero, Tarragonako Unibertsitate-
tetik deitu zidaten. 1993an bertan hasi nintzen lanean, irakasle. Esango nuke arkeologia irakasle titular baten postua betetzen duen arkitekto bakarra naizela. Gaur egun doktore naiz arkeologian.

Zelan sortu zitzaizun arkeologiarako grina?

Aitak txiki-txikitik sorrarazi zidan arkeologiarako grina. Durangaldeko ermitak bisitatzera eramaten gintuen. Gogoratzen dut, besteak beste, Goiuriako ermitara eramaten gintuela eta hango leihoei buruzko gauzak kontatzen zizkigula, eta, bide

batez, aztarna erromanikoak eta prerromanikoak azaltzen zizkigun. Etxean beti jaso dugu historiagazko zaletasuna eta horrek asko markatu nau. Gainera, arkitekturaren matrikulatu nintzenez argi nuen historiari loturiko ikuspegia landu gura nuela. Ondare historikoagazko interesa izan nuen hasiera-hasieratik. Arkeologia ere bide horretatik etorri da, apurka-apurka bidea eginez. Tarragonako alkateak bultzatuta, hiriko aztarna erromatarrak zaharbertzeko lan egin nuen, Unescok hiriko ondare arkeologikoa aitortzeko helburuz. Zazpi urteko lan ederra izan zen. Bestalde, unibertsitateak aukera mordoa eskaintzen dit beste ikerketa orokorrako batzuk lantzeko.

Izan ere, Mediterraneoan bakarrik ez, mundu zabaleko beste hainbat leku ere ikertu duzu.

Azken hamar urteotan Cuscon (Peru) ibili gara hango unibertsitate batez elkarlanean. Cuscok inken garaian zeukan urbanismoa zelakoa zen erakusten duen errekreazio birtuala sortzen ibili gara. Amerikan, arkeologia lanak beti egon dira antropologiagaz, kultur azterketagaz eta hartu-eman sozialekin lotuta. Europan, ostera, ikuspegia beste era batekoa izan da. Arkeologia eta arkitektura eskutik helduta joan dira errenazimendutik hona. Beraz, 2010ean Cuscora joateko lehenengo gonbitea egin zidatenean, egundoko hiria topatu nuen. Hango kaleak garai bateko inken egituretan daude oinarrituta. Egitura inka horien gainean garai kolonialeko eraikinak daude, eta horien gainean, azkenik, errepublika garaiko eraikin historikoak. Hori guzti hori Europako arkeologia ikuspegitik aztertu barik egon da, eta horretan ibili gara hamar urte hauetan. Oso aberasgarria izan da. Handik hona bueltatzerakoan, goitik behera aldatzen zaizu ikuspegia.

Zer zentzutan aldatu zaizu ikuspegia?

Hemen oso kultura eurozentristikoa

"CUSCON IKASI DUDANAK ORAIN ARTE BARNERATUTAKO DESERAIKITZEKO BIDE BAT ZABALDU DIT"

ta batean hazi gara. Badirudi Europa dela dagoenik eta gauzarik ederrena, onena, eta iruditzen zait, batzuetan, behar bada ignorantziagaitik, ezezagun egin ditugula iraganeko hainbat atal argitzen duten errealitate kultural eta historikoak. Amerikaren eta Mediterraneoaren arteko joan-etorri hau oso estimulagarria izan da. Europako azalpen guztiak era linealean kontatzen dira: greziarrak lehenengo, erromatarrak gero, kristautasuna segidan, Europako erresumak ondoren. Eta, horrez gainera, XIX. mendean eraikitako nagusitasunaren ideia dago, konkista inperialak justifikatzea ahalbidetzen duena. Horrenbestez, ikasitako horrek bide bat ematen dizu barneratu izan duguna deseraikitzeko.

Posible da herri edo hiri baten izaera eta nortasuna bere arkitekturaren eta arkeologiaren bitartez ezagutzea?

Jakina. Durango, adibidez, horren erakusgarri garbia da. Erdi Aroko zatiak, Andra Maritiko Santa Anara doanak eta garai bateko errebaletan hori erakusten dute. Egia esan, azken 40 urteetan gauza asko galdu da, dena ez da positiboa, baina galera horrek, paradoxikoki, memoria historikoagazko grina sustatzen lagundu du. Zerbait berria da hori. Durangotik paseatzen duan aldiro poza sentitzen dut, herriko hainbat eremu babesten eta hobetzen direla ikusita. Kuruzesantu ermita eta Kurutzia-gako gurutzia bisitatzeko plazer hutsa da. Tabirako San Pedro elizara joatea ere ezin ederragoa da. Kaleak asko aldatu diren arren, *via crucis* edo gurutzia bideak hor jarraitzen du, garai bateko aztarnek hor jarraitzen dute. Azken finean, oroimenean eta bizipenetan iltzatuta ditugun lekuak ebidentzia arkeologikoek lagundutako narratiba historiko batez jantzen baditugu, kohezio soziala eta memoria kolektiboa lantzen ibiliko gara. Gaur egun egonleku ditugun tokiek iragan bat izan zutela jabetzeak gu geu prozesu historiko oso baten emaitza garena ikusarazten digu.

Zein da Durangon gustuko duzun lekua?

Tabira. Eliza ondoko berdegunean dauden perretxiko itxurako harri horietara joaten zaizkit oroitzapenak. Leku horrek nerabearoa ekartzen dit gogora.

Baten batek esan zuen bost urte egiten ditugunetik aurrera ezer ere ez dela gehiago aldatzen gure barruan. Ez dakit horrela den ala ez, baina, edozelan ere, nongoa naizen galdetzen didatenean Durangokoa naizela esaten dut, beti. Eta hori Bartzelonan Durangon baino denbora dezente gehiago bizitzen daramadan arren. Kurioso da. Iruditzen zait hau guzti hau oraindino iraganeko aztarnak mantentzen dituzten lekuei lotuta dagoela, modu batera edo bestera, zure iraganera bueltatzea posible egiten duten eremuetara. Azken finean, sentipen positiboak dira, garai bateko esperientziak berriro ere bizitzearen pareko zerbait eragiten dizute oroimenean.

Tarragona, Cusco, Erroma, Berlin... arkeologia lanak sorterrian egitea baino ez zaizu falta.

Bai. Bizi osoa daramat arkitektura historikoa eta arkeologia historikoa lantzen, eta Durangon ikerketa bat egiteko arantza hori dut barruan. Durangon badago apartekoa eta bikaina den erai-kin edo elementu bat, sarritan jendeak behar den moduan ba-

loratzen ez duena. Andra Mariko elizpea da hori. Bere kronologian kokatuta, elizpearen egitura Europa osoko handiena da. Egitura garai hartako itsas-erotzeriaren emaitza dela esango nuke. Zurezko habeek itsasontzien hezurdura iraultan inspiratuta dirudite. Izugarri gustatuko litzaidake nire bizitzaren denbora zati bat Andra Mariko elizpea aztertzei eskaintzea. Ea datozen urteetan zerbait egiteko aukerarik dudan. Aparteko obra da, izugarria. Europako eraikuntza liburuetan, Andra Mariko elizpea armadura handiko habeen erakusgarri modura azaltzen da. Ikuspegi pedagogiko batetik, Durango oso adibide interesgarria da gure kulturaren oinarrietan dagoen Erdi Aroa azaltzeko. Durangar modura, oso estimulagarria litzateke niretzat.

"DURANGO ADIBIDE INTERESGARRIA DA GURE KULTURAREN OINARRI DEN ERDI AROA AZALTZEKO"



Arkeologo durangarra, ikasleekin, Erromako Spada Jauregian. R.M.



Ricardo Mar, eskuman, Cuscon egindako ikerketako lantaldeagaz (Peru). R.M.



CENTRO INTEGRADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL
ZORNOTZA
LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRATUA

DOHAINIK

GAITASUN DIGITALA

| ONLINE KOMUNIKAZIOA, KUDEAKETA ETA LANKIDETZA | |
|---|--------|
| Komunikaziorako eta kudeaketarako oinarrizko tresnak, mugikorreko informazioa, modu seguruan partekatzea, online lankidetz... | 8 ordu |
| EDUKI DIGITALAK SORTZEA ETA SAREKO SEGURTASUNA | |
| Irudi, bideo eta audio formatuak, sorkuntza eta edizioa, partekatzeke kanalak, sareko segurtasuna... | 8 ordu |

Ikastaroak URRIAN eta AZAROAN emango dira, egunean 2 orduko saioetan.
Goizez (10:00-12:00) edo arratsaldez (15:30-17:30) egin daiteke

55 urtetik gorakoek izango dute lehentasuna

Izazketa emateko irailaren 2tik aurrera, desitu eta informazioa emango dizugu!

Urritxe auzunea, z/g · Tfno: **688 665 300 · 946 730 251 · 48340 AMOREBIETA-ETXANO** (Bizkaia) · e-mail: maranburu@fpzornotza.com · www.fpzornotzalh.eus



Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU



GOBIERNO DE ESPAÑA



Plan de Recuperación,
Transformación y Resiliencia



ELUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Gazteentzako podcasta estreinatuko dute domekan

Gaztedi Durangaldea ekimenak martxan ipinitako Podgast proiektuaren babesle da ANBOTO. Domeka honetatik aurrera, Durangaldeko protagonista bat elkarrizketatuko dute astero. Lehenengo elkarrizketatua Oihana Azkorbebeitia izango da

Jone Guenetxea DURANGALDEA

Gaztedi Durangaldea ekimenak gazteei zuzenduriko hiru proiektu aurkeztu ditu asteon. Durangaldeko Mankomunitateak eskualdeko udalekin elkarlanean martxan ipinitako proiektuak dira eta Ermuko Izarra Centerren aurkeztu zituzten eguaztenean.

Egitasmo hauetako baten babesle da ANBOTO. Izan ere, podcast formatuak gazteen artean duen eragina kontuan hartuta, Mankomunitateak Podgast proiektua ipini du martxan, Bizkaiko Foru Aldundiagaz batera. Hartara, Jon Gomez Garai kazetariak gidaturiko elkarrizketak Instagramen @podgast_gd, Spotifyn eta Youtuben argiratu dituzte.

I'm Bizi ekimena

Gaztedi Durangaldea ekimenaren barruan, Gazteentzako Orientaziorako eta Enplegurako Azoka antolatu dute Zornotzan, azaroaren 21erako eta 22rako.



Mankomunitateko, Durangaldeko eta Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkariak

"Ezinbestekoa da gure gazteei garapen akademiko eta profesionalean laguntzea. Lehentasun bat izateaz haratago, gure komunitatearen etorkizunerako funtsezko giltzarria da", azaldu du Ainhoa Salterain Zornotzako alkateak.

Gazteei zuzenduriko hirugarren egitasmoa Gaztekimen izango

da: gazteen potentzial eraldatzailea bideratzeko ekimena. Oinarrizko Lanbide Heziketako bigarren mailako ikasleei zuzenduriko proiektua da. "Gure eskualdearen hobekuntzan modu aktiboan parte hartuko dute, ideiak eta proiektuak sortuz", azaldu du Idoia Otaduy Mankomunitateko presidentek.



Durangoko Abarrak euskaltegia. AEK

Beharrizan guztiak asetzeko eskaintza AEKren eskutik

Durangoko, Elorrioko eta Zornotzako AEK-k ikasturte berriko ikastaroetan matrikulatzeko epea zabaldu dute

Ekaitz Herrera DURANGALDEA

Durangoko, Elorrioko eta Zornotzako AEK-ko euskaltegiek ikasturte berriari matrikulatzeko epea zabaldu dute, "herritarren beharrezanetara ondoen egokitzen diren ikastaroak eta modalitateak" eskainita. Aurten, gainera, inoiz baino merkeagoa izango da euskara ikasten hasia. Eusko Jaurlaritzak kalera-uriko diru laguntza lerro berri bati eskerrak, A1 edo hasiera mailako ikasleek eskaintza berezia izango dute: euskara ikasten hasi berri direnek 0,6 euro baino ez dute ordaindu beharko

klase ordua. Gainera, 16tik 18 urtera arteko gazteek C1 maila prestatzeko aukera izango dute, 42 euroren truke. Era berean, HABEk eta udalek beste diru laguntza batzuk ere ematen dituzte. Interesdunak AEK-ko Durangaldeko euskaltegiekin hartu-emanetan ipini daitezke, 662 966 827 telefonora deituta edo durangaldekoak@ae.eus helbidera idatzita. Bestalde, datoen egunetan euskaltegiak kideak euren eskaintza plazaratzen egongo dira Berrizen, Zaldibarren eta Abadiñon (Zelaietan eta Traña-Matienan).

Memaian parke eoliko bat egiteko baimena eskatu dute

Proiektuak Elorrio eta Atxondo arteko lurretan bost haize errota instalatzeko asmoa jasotzen du

Ekaitz Herrera DURANGALDEA

Mendia Wind SL enpresak eskari bat erregistratu du Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Ekologiko eta Jasangarritasun Sailean, Atxondoko eta Elorrioko lurretan parke eoliko bat eraiki ahal izateko. Proiektuak *Mendia 3* du izena eta Memaia mendiaren inguruan bost haize errota eraikitze asmoa jasotzen du. Parke eolikoak 36 megawatteko elektrizitate potentzia sortuko luke. Eusko Jaurlaritzako iturriek ANBOTOri baieztatu diotenez, enpre-

sa promotoreak jada eskatu du parke eoliko egiteko baimena. Beraz, tramitazio administratiboa martxan da. Baina Jaurlaritzako iturriek ohartarazi dutenez, oraindino goiz da parke eoliko egingo dela baieztatze edo ezeztatze. "Tramitazioa hasteak ez du esan gura egingo denik edo egingo ez denik. Parke eoliko egingo den ala ez prozesuaren amaieran zehaztu da. Izan ere, hainbat fase pasatu beharko du, hainbat txosten sektorial. Parkeak ingurumen inpaktuari loturiko

azterlanak pasatu beharko ditu batetik, eta elektrizitate-sare arruntera lotzeko aukerarik eskaintzen ote duen aztertu beharko da bestetik. Horrez gainera, alegazioen fasea ere badago. Oraingoz aurreratu dezakeguna da administrazioa zorrotza izango dela, prozesua berme guztiekin egingo dela eta proiektuaren geroa ez dela motzera begira ebatziko", argitu dute.

Parke eoliko eraikitze bidea abiapuntuan dago momentu honetan, enpresen lehiakortasunari loturiko fasean.

Durangaldeko proiektuaz gainera, Mendia Wind SL enpresak antzerako beste egitasmo bat egin gura du Arratian, Dimako eta Zeanuriko lurretan, Otxandiotik gertu. Proiektu horretan 8 errota ipintzeko asmoa dute.



Eremu berdean parke eolikoak etorkizunean hartu dezakeen gunea. ANBOTO

Aurrekontuko 200.000 euro zertan inbertitu erabakiko dute

Durangoko aurrekontu parte hartzaileetako bozketa epea martxan da, hamazazpi aukeragaz

Ekaitz Herrera DURANGO

Datozen asteetan, Durangoko herritarrek 2025eko aurrekontuetako 200.000 euro zelan erabili erabakiko dute. Udalak aurrekontu parte hartzaileen azken fasea ipini du martxan. Herritarrek 17 proiektutan eman dezakete botoa. Honako hauek dira horietariko batzuk: Mañaria erreka baxterreko latsarriak hobetzea (100.000 euro), kale katuen arazoa kudeatzea (18.000 euro), sexu orientazioa (35.000 euro), sukaldaritza ikastaroak egitea (10.000 euro), Juan Itziarko iturria egokitzea (17.000 euro), Play It musika jaialdia egitea (50.000 euro), adinekoentzako edukiontzi lagunkoiak ipintzea (50.000 euro), bizikletentzako aparkalekuak egitea (10.000 euro), bide hezkuntza hobetzea (5.000 euro), herriko zaintza parte hartzaileen diagnostia (15.000 euro), tenis pistetako zoladura aldatzea (75.000 euro) eta parke berdeak egitea (100.000 euro).

Bozketa honetan parte hartzeko aukera irailaren 23ra arte dago zabalik, *partehartu.durango.eus* atarian. Hamasei urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dutela jakinarazi du Durangoko Udalak.

39 izendapen, plaza, kale eta zubi berri banarentzat

Durangarrek eta iurretarek hilaren 15era arte eman ahal izango dute botoa lekuok izendatzeko

Ekaitz Herrera DURANGO / IURRETA

Durango eta Iurretan hainbat herri galdeketa ipini dute martxan udalerriotan sortu berri diren eta sortzekoak diren eremuak izendatzeko. Durangarrek herriko kale eta plaza berri bana izendatzeko aukera dute zabalik. Bestalde, udalerririk bietako biztanleek (durangarrek eta iurretarek), bozketa bidez aukeratu dute Ibaizabal erreka pasabide berriaren izena. Botoa emateko epea irailaren 15ean, domekan, amaituko da hiru kasuetan. Durangarrek *partehartu.durango.eus* atarian, Intxaurrondoko gaztegunean edo Herriarrentzako Arreta Zerbitzuan eman beharko dute botoa plaza, kalea zein zubi izendatzeko. Iurretarek Herriarrentzako Arreta Zerbitzuan, botikan, harategian, okindegian, Ibarretxe Kultur Etxean eta udaletxean ipini dituzten buzoietan eman dezakete botoa zubi izendatzeko. Zubi izendatzeko proposamenen artean, Atxutxietako Zubi edo Sapuzubi daude. Plazari dagokionez, Marisa Barrena eta Jose Luis Baque izenak agertzen dira, besteak beste. Eta kalearen kasuan, Leopoldo Zugazaren eta Andoni Iruarrizagaren izenak.

Mediku bat Zaldibarren irailaren 30etik aurrera

Udalak esan du "neurri positiboa" dela mediku faltaren arazoa konpontzeko, baina gogoratu du Zaldibari mediku bi dagozkiola. "Bigarren medikua ere lehenbailehen ipini dezan eskatzen diogu berriro ere Osakidetzari", eskatu du alkateak



Herritar ugari bat egin zuen joan zen barikuko manifestazioagaz.

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Osakidetza Zaldibarko Udalerri jakinarazi dionez, irailaren 30etik aurrera mediku bat egongo da herritarrei osasun arreta ematen herriko anbulatorioan. Udalak esan du "neurri positiboa" dela mediku faltaren arazoa konpontzeko, baina, euren esanetan, ez da nahikoa. Zaldibari mediku bi dagozkiola gogoratu dute: "Eskertzekoa da Osakidetza arazoa konpontzeko egingo dako lana. Irailaren amaieratik aurrera mediku bat izango dugu, berri positiboa da, baina gogo-

ratu gura dugu zaldibartarrok mediku bi behar ditugula osasun arreta duina jaso ahal izateko, bat barik. Bigarren medikua ere lehenbailehen ipini dezan eskatzen diogu berriro ere Osakidetzari", eskatu du Eneritz Azpitarte alkateak.

Manifestazio jendetsua

Joan zen barikuan, zaldibartar ugari bat egin zuen mediku faltaren arazoari "berehalako konponbidea" eskatzeko manifestazioagaz. Protesta udaletxeko plazatik hasi zuten. Manifes-

tariak Euskal Herria etorbidea zeharkatu zuten gero, eta birritan pasatu ziren osasun zentroaren paretik. "Herritar guztion ardura da hau. Horrenbestez, egoera honek bere horretan jarraitzen badu, herritarrei dei egiten diegu mobilizazioetan parte hartzera, halakorik egonez gero. Era berean, herriko gainerako eragileak deitzen ditugu deialdiekin bat egitera", esan zuten antolatzaileek amaieran. Zaldibarko Udalak "bere egin ditu" herritarrek azken egunotan adierazitako kezak.



MILUS HOUSE

ENGLISH PLAY

2-8 urte

ENGLISH BOOK & PLAY

8-12 urte

INGELES JOLASTUZ IKASI



A family space to play and learn

T: 626 933 614

www.milushouse.com

Kuntzalegi 17, Durango



INGELES IKASTAROAK

IRAKASLE NATIBOAK

MATRIKULA DOAN

Preparatu Cambridge English Qualifications



PYM'S IDIOMAS

SINCE 1974

Klaseak irailaren 9an hasi dira

%25eko deskontua

2024ko iraileko kuotetan

946 815 677 / 623 364 980

Mirreza Torre SA, beheko 48200 Durango

Durangaldeko mobilizazioa mediku gabezia salatzen

Berrizko Pentsiodunen Mugimenduak deituta, dozenaka herritar kalera irten dira Berrizko anbulatorioan hiru mediku egon daitezen exijitzeko; Durangalde mailako mobilizaziora deitu dute, irailaren 19rako, eskualdeko "egoera larriak" kezkatuta

Ekaitz Herrera / A. M. BERRIZ

Berrizen dozenaka lagun batu dira egunotan egin diren mobilizazioetan. Berrizko Pentsiodunen Mugimenduak deituta, herritar ugari parte hartu du martitzenean eta egunean egingako manifestazio eta elkarretaratzeetan. Hain zuzen ere, herritarrek kezkatuta agertu dira maiatzaren 24tik mediku bakarria dutelako, Osakidetzaren irizpideen arabera hiru mediku dagozkien arren. "Udaberritik hona egoerak okerrera egin du; eta udan gehiago larritu zen, medikurik barik geratu ginen eta. Gaur egun mediku bakarria dugu osasun arreta ematen. Gainera, ez dakigu Osakidetzak zein asmo duen etorkizunerako. Jasotzen dugun informazioa kontraesankorra da, hedabideen bitartez baino ez dugu jasotzen, eta horrek areagotu egiten digu inork aintzat hartzen ez gaituen sentipena", azaldu zuten mobilizazioa amaitu eta gero.



Martitzeneko manifestazioko irudia.

Mobilizazioan herriko kale nagusiak zeharkatu zituzten, eta hainbat lelo oihukatu; besteak beste, "Osakidetzak defendatu dezagun" eta "ez bat ez bi, hiru mediku gura ditugu".

Irailaren 19rako Durangalde mailako manifestaziora deitu dute, eskualdeko herrietan dagoen mediku gabeziak kezkatuta; mobilizazioa Berrizen izango da, 19:00etan.

Amorebono kanpaina berriak 32.000 bonu eskainiko ditu

Kanpainak Zornotzako komertzioetan kontsumoa bultzatzea du helburu; jada erosi daitezke bonuak



Urta Uriarte, Cristian Osip, Amaia Aurrekoetxea eta Koldo Bilbao zinegotzia.

Aritz Maldonado ZORNOTZA

Zornotzako komertzioetan kontsumoa bultzatzeko helburuarekin, Amorebono kanpaina berria aurkeztu dute. Herritarrei erosketan deskontuak lortzeko aukera eskaintzea ere bada kanpainaren helburuetariko bat. Guztira, 32.000 bonu ipiniko dituzte eskuragarri, horietatik 2.000 lehen sektoreko ekoizleentzat, eta gainerakoak merkatarientzat.

Bonuak abenduaren 20ra bitartean egongo dira eskuragarri, Herritarren Arretarako Zerbitzuan eta Zelaieta zentroan. Kanpainari atxiki zaizkion establezimenduetan 20 euroko ordainketak egin ahal izango dira, aurretik 15 euroan erositako bonuekin. Gehienez bost bonu erosi daitezke NAN bakoitzagaz.



Eguazteneko ekitaldia.

Frankismoaren biktimak gogoratu dituzte Berrizen

Ekitaldi jendetsua egin dute Berrizen, irailaren 11ro legez, "frankismoaren biktima guztiak" oroitzeko

Aritz Maldonado BERRIZ

Berrizko Memoria eta Giza Eskubideen Taldeak eta udalak frankismoaren biktima guztiak omentzeko ekitaldia egin zuten eguaztenean. Hain zuzen ere, 1937ko irailaren 11n, Felipe Urriaga eta Jose Agirre berriztarrak fusilatu zituzten. Ekitaldiaren lehenengo zatia Kultur Etxean egin zuten, euriagaitik. Dantzari saioaren ondoren, Miren Amurizak eta Eneritz Gorritxategik poesia musikatu ikuskizuna egin zuten. Amurizak Berrizko emakumeen testigantzetan oinarrituta idatzi zituen

olerkiak. "Badago errelato bat denok ezagutzen duguna, gerra-rena eta epikagaz beteta dagoena, baina ahots eta gorputz batzuk kontakizun horietatik kanpora geratu izan dira beti", azaldu zuen. Gero, lore eskaintza egin zuten Felipe Urriaga plazan. Antolatzaileek Gregorio Urkijoren (hau ere 1937an fusilatu zuten, abuztuaren) Arakaldoko (Bizkaia) senide bi egon zirela nabarmendu zuten.

Dokumental zikloa ere egon da, eta eguazten, eguen eta barrikuan film laburrak eman dituzte.

Haurreskolako eta HH 2 urtekoen eraikin berria zabalik

Bost urte behar izan dituzte eraikina guztiz berregituratzeko; aste honetan zabaldu dituzte ateak

A. M. ELORRIO

Ikasturte berriagaz, Elorrioko Haurreskolako eta Haur Hezkuntzako urte bikoien eraikin berria zabaldu dute. Eraikina eraberritzeko prozesua udalaren eta hezkuntza komunitatearen bost urteko elkarlanaren emaitza izan da; izan ere, 2019an diagnostikoa egin eta gero, eraikina "txarto" zegoela ondorioztatu zuten. Horrez gainera, eraikin "moderno, irisgarri eta energetikoki jasangarria" behar zela ondorioztatu zuten, "beharrizan pedagogikotik eta ikuspegi fun-

tzionaletik hobeto antolatutakoa. Guztira, obraren kostua bi milioi eta erdi euro ingurukoa izan da. Horietatik 1.300.000 euro udalak ordaindu ditu, eta gainerakoa Europaren, Jaurilaritzaren eta Aldundiaren laguntzagaz ordaindu dute. "Europak partaidetza puntuak, administrazio taldeen arteko lankidetzak eta proiektuaren kalitatea ebaluatzen zituen bereziki, eta, beraz, udalaren eta hezkuntza komunitatearen artean egindako lana erabakigarria izan da", esan du Maria Herrero zinegotziak.

GREMIOEN GIDA

Zurgintza

leike Eraberritzeak
Interiorismoa
Aroztegia

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leike.eus
Antso Estegiz. 3 Durango
Tlf: 94 681 72 29

Zurgintza

ATERPE ARDITZA
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar
635 74 84 65
www.carpinteriaaterpe.com

Iturgintza

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Elektrizitatea


ELECTRICIDAD JON

622 684 284
electricidadjon@outlook.es

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialedea, 45 Garala A - BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaioarnizatuak.com
www.jaioarnizatuak.com



Euskal Herriko Artzain Txakur Txapelketa, Axpen

Zapatu arratsaldeko txapelketak hamar lehiakide batuko ditu Axpeko zelaian, eta euretariko bi abadiñarrak dira: joan zen asteburuan Bizkaiko txapelketa irabazi zuen Karlos Ardanza 'Mendi' txakurragaz, eta Kepa Ardanza 'Urbi' txakurragaz

Joseba Derteano ATXONDO

Zapatua ekitaldiz beteriko eguna izango da Axpen. Goizean zehar, Axpen hasi eta amaituko da Sorginen Lasterketaren 17. aldian. Eta arratsaldean Euskal Herriko Artzain Txakur Txapelketa lehiatuko dute, hantxe bertan. Final hau 17:00etan hasiko da.

Txapelketak hamar lehiakide batuko ditu, txakur banagaz. Bizkaia izango du ordezkari gehien: lau. Hiru Bizkaiko txapelketatik sailkatu dira. Bizkaiko txapelketa hau joan zen asteburuan lehiatu zuten, Mungian, eta Karlos Ardanza abadiñarrak irabazi zuen, Mendi txakurragaz. Imanol Diaz zallarria geratu zen bigarren, Loli txakurragaz, eta Kepa Ardanza abadiñarra hirugarren, Urbi txakurragaz. Hirurak Axpen izango dira bihar arratsaldean. Laugarren ordezkaria Euskal Herriko izako txapelduna da: Enrike Mendiguren orozkoarra, Laia txakurragaz.

Hamarkotea Gipuzkoako, Ara-



Bizkaiko txapelketako parte hartzaileak, Mungian. EHATE

bako eta Nafarroako txapeldun eta txapeldunordeek osatuko dute. Gipuzkoako ordezkariak honako hauek dira: Jabier Zubiaurre mutrikuarra Mendi txakurragaz, eta Aitor Tato ataundarra Fidel txakurragaz.

Arabako bikote biak Ilarduiako Jose Mari Jauregi-Sua eta Aramaioko Bizente Lopez de Azpilikueta-Bat dira. Azkenik, hauek dira Nafarroako bikoteak: Antonio Alustiza-Bat, eta Jorge Oteiza-Lagun.

Lehia estua

Enrike Mendiguren berriro txapela irabazteko faboritoen artean dago. Ez du alferrik irabazi zortzi bider Euskal Herriko txapelketa 2000. urtetik hona. Karlos Ardanza abadiñarrak eta Mendik sasoian daudela erakutsi zuten Mungian, eta Euskal Herriko txapela lehenengoz janzten ahaleginduko dira. Ardanzak hiru bider irabazi du Bizkaiko Artzain Txakur Txapelketa. Kepa Ardanza abadiñarrak ere badaki Euskal Herriko txapelketa irabaztea zer den: 2002an eta 2003an irabazi zuen, Txiki txakurragaz. Aurten Urbi txakurra izango du bidelagun.

Euskal Herriko txapelketa 1967an antolatu zuten lehenengoz. Harrezkero, Durangaldeko bost lagunek irabazi dute: Serafin Etxanobe mañariarrak 1967an, 1968an, 1970ean eta 1971n; Jose Luis Jaio mañariarrak 1969an; Jose Urienek 1999an eta 2011n; Xabier Urienek 2006an eta 2007an; eta Kepa Ardanzak 2002an eta 2003an.

Oñatiko nazioartekoa

Axpeko txapelketaren ondoren, beste hitzordu garrantzitsu bat jokatuko da: Oñatiko nazioarteko txapelketa, irailaren 22an. Bizkai, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako txapeldunak sailkatuta daude dagoeneko. Horiez gainera, Axpen beste bikote bi sailkatuko dira.

Emakumeen irakurketa kluba urrian Atxondon

Izen ematea martxan da. Urriaren 16tik aurrera saio bat egongo da hilero, maiatzera arte

J.D. ATXONDO

Atxondoko Udal Liburutegian emakumeentzako irakurketa kluba antolatu dute aurten ere. Mireia Delgadok gidatuta, hilero liburu bat irakurri eta denek elkarregaz haren gaineko gogoeta egingo dute liburutegiko saioetan.

Guztira, zortzi klasek osatzen dute aurtengo ikasturtea. Lehenengoa urriaren 16an izango da. Hortik aurrera, hilero saio bat izango da, maiatzera bitartean. Data honako hauek dira: urriak 16, azaroak 20, abenduak 18, urtarrilak 29, otsailak 26, martxoak 26, apirilak 9 eta maiatzak 21. Klaseak arratsaldean izango dira, 16:30etik 18:30era.

Interesdunek izen ematea hainbat modutara egin dezakete: liburutegian bertan, liburutegia@atxondo.eus helbide elektronikora idatzita, edo 697 196 748 telefono zenbakira deituta.

Joskintza ikastaroa hasiko dute Mañarian urriaren 3an

Mañariko Udalak joskintza ikastaroa antolatu du. Urriaren 3an hasiko da eta saioak egunero izango dira. Ikastaroaren helburua ikasle bakoitzak bere arropa moldatzeko gai izatea da: josteko makina zelan erabiltzen den ikastea, praken barrenak hartzea, kremaileak ipintzea... Ikastarorako izen ematea irailaren 23tik 27ra izango da. Hilean 15 euro ordaindu beharko da.

Bestalde, udalak antolaturiko kirol ikastaroei dagokienek, ateak zabaltzeko jardunaldiak datorren astean izango dira, irailaren 16tik 20ra. Ondoren, izen ematea irailaren 23tik 27ra egingo dute, joskintza ikastarorako lez.

Antolatzaileak gustura Gertufesten "bizitasunagaz"

Bisitarien zein parte hartzaileen partetik "oso feedback ona" jaso dute aurten egun bitan egin den jaialdian

J.D. IZURTZA

Izurtzako jaien barruan, antolatzaileak gustura geratu dira Santo Tomas parkean egindako Gertufest jaialdiagaz. Aurten nobedade izan diren antzerki laburrek, parkean hara eta hona ibili diren magoek eta bestelako ikuskizunek ekimenari eman dioten "bizitasuna" nabarmendu dute, eta baita parkean bisitarien nahiz parte hartzaileen artean sortu den giro "naturala" ere.

Aurtengo nobedade bat piknik lehiaketa izan da, baina azkenean bertan behera utzi behar izan

zuten belardia busti zegoelako aurreko egunetan egindako euriagaitik.

Antolatzaileek eskerrak eman dizkiote Izurtzako Udalarari, ekimena egun bitan banatzea ahalbidetu dielako, horrek erraztu egin baitu azpiegitura osoa muntatzea eta desmuntatzea. Antolaketan parte hartu duten boluntario guztien lana ere azpimarratu dute, eta boluntario berrientzat atea zabalik dutela adierazi dute, "laguntza txiki batek eragin handia" duelako antolakuntzan.



Umeei zuzenduriko ikuskizun bat, Gertufest jaialdian. LUCIA MERUELO

Euskara eroso bizitzeko

æk

euskara praktikoa



Zatoz AEKra

EUSKARA-IKASTAROAK

Euskalduntze maila guztiak (A1, A2, B1, B2, C1)
16-18 urte bitartekoek C1 mailan, beherapen berezia
C2

Online ikastaroak

Autoikaskuntza (tutoretzatan oinarrituta)

Durango, Santanoste 4, behea · 94 681 73 49/607 159 205 · abarrak@æk.eus

Elorrio /Atxondo, San Juan 23, behea · 607 600 901 · abizari@æk.eus

Zornotza, San Pedro 3, behea · 607 151 917 · zornotza@æk.eus

Berriz / Zaldibar / Abadiño / Iurreta / Izurtza / Mañaria
662 966 827 · durangaldekoaek@æk.eus

DIRULAGUNTZAK

EUSKO JAURLARITZA: mailaren bat egiaztatuz gero

UDAL GUZTIEK

**anboto
kide**

Anbotokideen
txokoa

IRAILEKO ZOZKETAK



Alcamporen eskutik Euskal Herriko produktuen
otzara.



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz: Zornotza.



Aukan izozkiak. 6 izozki edo etxera eramateko
1/2 litroko 2 tarrina. Durango.

Okm:

batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman
izena gure webgunean.

Egin zaitetz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Usadioari eutsita, otxandiarrek Basabisita egingo dute domekan

Limitaduaren mugak aztertzerako joateko hitzordua plazan ipini
dute, 08:00etan; bakailaoa eta ardoa banatuko dituzte



Iazko Basabisitaren irudi bat. OTXANDIOKO UDALA

A.B. OTXANDIO

Urteroko hitzorduari hutsik egin
barik, otxandiarrek Basabisita
egingo dute domekan, oraindino
eztabaida sortzen duen Limita-
dura buelta. Otxandioren eta
Aramaioren artean dagoen lur
eremu hori zein herriren jabe-
tzakoa den ez dago argi. Bada,
udal agintari zein herritarrek
irteera egiten dute irailaren
hirugarren domekan, Limita-
duaren mugak aztertzeko. Pla-
zatik irtengo dira, 08:00etan.

Atabalariaren erritmoak la-
gunduta, mugarrien egoera az-
tertu eta ondoko arboletan mar-
kak egingo dituzte herriko
mugak markatzeko. Ondoren,
udal idazkariak akta jasoko du
Oletan. Udal ordezkariak ez ezik,
herritarrek ere badute sinatze-
ko aukera. Udalak bakailaoa eta
ardoa banatuko ditu.

Iurretan prest dute kultur eskaintza ikasturte berrirako

Zabalik dago epea antolaturiko ikastaro eta ekintzetan
izena emateko, irailaren 20ra bitartean



Zorione Fundazuri, Amaia Legorburu, Oskar Koka eta Pilar Jimenez.

A.B. IURRETA

Iurretan zabalik dago epea ikas-
turte berriari begira prestatu-
riko ikastaro eta jardueretan
izena emateko. Herrian errol-
datutakoek irailaren 20ra bitar-
tean dute horretarako aukera;
gainerakoek irailaren 18tik 20ra
eman beharko dute izena. Aur-
ten, 851 plaza eskainiko dituzte,
iaz baino 50 gehiago. Udal ar-
duradunek azaldu dutenez, "adin
guztietara egokitutako kultur
eskaintza zabala" osatu dute.
Ikastaro finkoek urrian hasi eta
ekainera arte iraungo dute, eta
tailer monografiko laburrekin
uztartuko dituzte, Ibarretxe kul-
tur etxean. Hori guzti hori Herri
Bibliotekak eta Gizartze Ongi-
zate Sailak antolaturiko egita-
raekin osatuko dute. HAZen
eman daiteke izena, eta arra-
tsaldez kultur etxean ere bai.

Santa Katalinako jaiak Garain



Santa Katalinako ermita. E.H.

Ekaitz Herrera GARAI

Asteburu honetan Garaiko San-
ta Katalina ermitako jaiak ospa-
tuko dituzte. Ekitaldiak zapu-
tu iluntzean hasiko dituzte,
20:30ean, auzotarren artean
Donien Atxa jasota.

Domekan, 11:00etan, meza
egongo da, eta horren ondoren
dantzarien emanaldia. Ospaki-
zunak behar den moduan amai-
tzeko, bertaratzen direnek luntx
bategaz gozatu ahal izango dute.
Garaiko Udalak antolatu ditu
ekitaldiak.

Urritik aurrera pediatria zerbitzua Traña-Matienan

lazko urte amaieratik arazoak dituzte Abadiñon, Traña-Matienako osasun zentroan, pediatria zerbitzuagaz. Joan zen barikuan Abadiñoko Udalak prentsa ohar bidez jakinarazi zuenez, urriaren erdialdetik aurrera berriro emango dute zerbitzua

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Azken hileetan Abadiñon arazoak izan dira pediatria zerbitzuagaz. Joan zen urte amaieratik, Traña-Matienako osasun zentroan hutsunea egon da pediatria zerbitzuan. Harrezkero, Abadiñoko Udalak hainbat bilera egin du Osakidetzagaz, eta Traña-Matienako haurrak beste osasun zentro batzuetara bidertzea izan da orain arteko soluzioa. Gaur egun, Otik 6 urtera arteko umeek Zelaietako zentrorra joan behar izaten dute, eta 7tik 14 urtera artekoek Zaldibarrera edo Elorriora.

Joan zen barikuan, baina, Abadiñoko Udalak prentsa ohar bidez jakinarazi zuen Traña-Matienako osasun zentroak pediatria zerbitzua berreskuratu duela, hala baieztatu diola Osakidetzagaz.

Abadiñoko Udalaren berbetan, urriaren erdialdean hasiko dira pediatria zerbitzua ematen; hau da, "plaza hori hartu duen lan-



Pediatria zerbitzua berrezartzea eskatzeko egindako elkarretaratzea.

OTIK 6 URTERA ARTEKOAK ZELAIETARA JOATEN DIRA, ETA 7TIK 14RA ARTEKOAK ZALDIBARRERA

gileak gaur egun duen lanaldia amaitutakoan".

Bestalde, Abadiñoko Udalak deituriko elkarretaratzeak behin-behinean bertan behera geratuko direla adierazi zuten prentsa oharrean.

Joxpa erromeria eta DJ Bull pijama eta kamisoi egunean

Domekara bitartean Aitte Kurutzeko jaiak ospatuko dituzte Abadiñon. Egitarau zabala antolatu dute



2022ko Aitte Kurutzeko jaietako argazkia.

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Asteburu honetan Aitte Kurutzeko jaiak ospatuko dituzte Abadiñon. Gaur, barikua, emango diete hasiera jaietara, pijama eta kamisoi egunagaz. Besteak beste, parrillada, Joxpa taldeagaz erromeria, ohiko patata dantza eta DJ Bullen saioa izango dituzte gaur.

Bestalde, zapatuan, umeentzako jolasak, Sakatu elektrotxaranga, tortilla txapelketa eta bingo musikatua egongo dira.

Domekan emango diete amaiera jaietara, mozerro egunagaz. 08:30ean hasiko dute eguna, Urkiolara bizikletan joanda. 11:00etan bizikleta zirkuitua eta artisauen azoka egongo dira, eta 12:30ean lagun arteko zumba saioa. 14:00etan bazkari herrikoia egongo da, eta 16:30ean erromeria Eingo taldeagaz.

Helduen euskalduntzea bultzatzeko bekak Mallabian

Udalak 3.000 euro erabiliko ditu beka hauetarako; eskabideak aurkezteko epea urriaren 31n amaituko da

Maialen Zuazubiskar MALLABIA

Mallabiko Udalaren ustez, "oso garrantzitsua" da helduak euskalduntzea eta alfabetatzea, udalerriko euskal hiztunen kopurua handitzeko. Hori horrela, 2023-2024 ikasturteko aurrekontuan kontu sail bat izendatu zuten, ikasturte horretan zehar helduen euskalduntze-ikastarotara joan diren Mallabiko biztaleei bekak emateko.

Bekaren onuradunak Mallabian erroldatuta dauden eta udal euskaltegiaren eta euskaltegi pribatuaren zein barnetegi homologatuaren ematen diren euskara ikastarotara joaten diren pertsona guztiak dira.

Mallabiko Udalak 3.000 euro erabiliko ditu beka hauetarako, eta honela banatuko du dirua: bertaratzea %75etik 79ra bada, matrikularen %75 ordainduko da; %80tik 89ra bada, matriku-

laren %90; eta bertaratzea %90etik gorakoa bada, matrikularen %100.

Mallabiko Udaletik jakinarazi dute eskabideak aurkezteko epea 2024ko urriaren 31n amaituko dela, eta ez dela epea kanpoko eskaerarik onartuko. Eskaeragaz batera, eskatzailearen NAN fotokopia, matrikularen ordainagiria eta euskaltegiaren bertaratze ziurtagiria aurkeztu behar dira.

Eskaerak ebazteko gehieneko epea azaroaren 29an amaituko dela jakinarazi dute.

ESKAERAK EBAZTEKO GEHIENOKO EPEA AZAROAREN 29AN AMAITUKO DELA JAKINARAZI DUTE



TURISMO DURANGO
NATURA KULTURA HISTORIA

DOAKO BISITA GIDATUAK

HERIOTZAREN KULTURA

Irailak 21, 12:30etan

DURANGO ZURI BELTZEAN

Irailak 22, 10:30etan

Apunta Zaituz!

946 033 938 • turismo@durango.eus

Irailaren 22ra bitartean eman daiteke botoa Argazki Lehiaketan

Udako Argazki Lehiaketa azken fasera heldu da

Maialen Zuazubiskar DURANGALDEA Azken asteotan irakurleen argazkiak jasotzen ibili gara ANBOTO-n. Egunotan dozenaka argazki jaso ditugu eta dagoneko Udako Argazki Lehiaketa azken fasera pasatu da. Hau da, lehiaketako irabazleak nortzuk

diren erabakitzeke unea da. Azken urteotan legez, aurten ere lau sari banatuko dira. Alde batetik, epaimahaiak sari bi emango ditu: Durangaldeko argazkirik onena (smartbox bat irabaziko du), eta eskualdetik kanpoko argazkirik onena (Da-

tabostek emandako bluetoo aurikularrak).

Bestetik, irailaren 16tik 22ra irakuleek euren argazkirik gustukoena aukeratu ahal izango dute, *anboto.org* webgunean sartu eta botoa emanda. Botorik gehien jasotzen duten argazkiek sari hauek eskuratuko dituzte: Durangaldekoen artean botorik gehien lortzen duenak Garai landetxean egonaldia, eta eskualdetik kanpoko artekoak Errigoraren produktuekin osaturiko otzara.



JON ARMENDIA

POLITIKAN

JESICA RUIZ PEREZ
PSE-EE

Ikasturte berria

Iraila eskolara, lanera eta errutinarara itzultzeko hilabetea da. Askorentzat sasoi triste eta gogorra izaten da, baina udaleko hainbat arlotatik itzulera hori atseginagoa izan dadin, aurten ere ikastaroen programa anitza aurkeztu dugu. Kasu batzuetan, aurreko urteetako ikastaroak errepikatu ditugu, arrakasta handia izan dutelako, eta beste batzuetan, berriz, ikastaro berriak proposatu ditugu.

Kulturaren, urte osoko pintura ikastaroa edo hileko ikastaroak ditugu. Berdintasun arloan, jabe-kuntza eskolan, askotariko ikastaroak antolatu ditugu; adibidez, emakumeen nortasuna eta subjektibotasuna lantzekoak edo osasuna eta genero lantzekoak. Eta nagusientzako, zahartze aktiborako programaren barruan 500 plaza baino gehiago eskainiko dira, psikomotrizitatea, ongizate emozionala edo erorikoen prebentzioa landu edo informatikaren murgiltzeko, besteak beste. Ikastaro hauen inguruko informazio gehiago nahi izanez gero, hurbil zaitezte Andragunera edota Adinekoen zentzora.

Ikastaro batzuek jarduera fisikoa eta mentala sustatzea dute helburu; beste batzuek, ordea, gizartearen parte-hartzea eta ongizate emozionala sustatzea. Dena dela, guztien xedea jendearen bizi-kalitatea hobetzea eta erlazionatzea da.

Alderdi sozialistatik argi dauka, garrantzitsuena pertsonak eta egunerokotasuna atseginagoa egiten duten keinu txikiak dira. Hainbeste aukeraren artean, seguru baten bat interesgarria iruditzen zaizula. Ez utzi ihes egiten.

DURANGALDEA ASTEON

Mendian hildako mendizaleak gogoan Besaiden

DURANGALDEA 1955etik, mendi istripuetan hildako mendizaleak omentzen dituzte urtero Besaiden. Aurtengo oroimen ekitaldia hilaren 15ean izango da, domekan. Antolatzaileek oroimen ekitaldi zibila antolatu dute 11:00etarako.

Jakinarazi dutenez, Besaiden bertan txosna bat ipiniko dute, urtero legez, janariagaz eta edariagaz.



Gimnasia eskaintza handitu dute Abadiñon

ABADIÑO Parte hartzaileen eskariari erantzuteko asmoz, Abadiño Udalak zabaldu egin du gimnasia eskaintza 55 urtetik gorakoentzat. Hori horrela, martitzenetan beste ordu bat gehitu dute, 12:00etatik 13:00etara.

Bestalde, plazak baino eskatzaile gehiago dituzten taldeetan zozketa publikoa egingo dutela jakinarazi dute.

Irten da Maristen 120. urteurreneko tren

DURANGO Maristak ikastetxeak 120 urte egingo ditu eta urteurrena hainbat ekimenen bitartez ospatuko dute ikasturtean zehar. Asteon, urtero egiten duten ikasturte hasierako ariketa kolektiboa egin dute. Ikasturte hasierako ariketa modura, ikasleek bagoiak diseinatu behar izan dituzte, eta, taldeka banatuta, 120 maketara heltzea zen helburua, ikastetxearen urte kopurura, hain zuzen ere.

Hilaren 17ra arte garbigune mugikorra Askondon

IURRETA Iurretarek garbigune mugikor bat dute Askondo kalean, hilaren 17ra bitartean. Horrela, herritarrek etxeko tresna elektriko txikiak, sukaldeko tresnak, sukaldeko olioak, telefono mugikorrak, kableak eta abar bertan uzteko aukera izango dute. Garbigune honeguz birziklatzea errazagoa izango dela jakinarazi dute udaltik, garbigunea herritarrengandik hurbilago egongo delako.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: **Bixente Kapanaga 9 - Iurreta**
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:

- Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGUISTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



MARGOTU

Margotu irudia ezkerreko ereduari jarraituta.




ITZALAK

Zein itzal dagokio beheko irudi bakoitzari?




PUNTUAK LOTU

Puntuak lotu eta irudia sortuko duzu. Gero, margotu gurago duzun moduan.



SUDOKUA

Kokatu beheko loreak beheko lauki zurietan.





Estutu.

"Bulegoetatik kanpora ere bizirik dago eszena"

MUSIKA Estutu talde elorriarrak 'Gure hautua' lan berria aurkeztuko du zapatuan, Arrasateko gaztetxean; Rebel Noise, Azken Sustriaiak eta Oi! se arma taldeekin batera aurkeztuko dute; lan berrian, "makarrismo" musikalaren aldeko hautua berretsi dute

Aritz Maldonado ELORRIO

Estutu talde elorriarra gogotsu bueltatuko da taula gainera *Gure hautua* lan berriagaz. "Musika makarrak ere bere tokia duela aldarrikatu gura dugu", esan dute elkarrizketan. Gaur egun, Aimar Sainz de Murieta, Andoni Orbegozo, Andu Moreno eta Mario Cruz dira taldekideak.

Zelako harrera izaten ari da lan berria?

Mario Cruz: Ona esango nuke, baina, batez ere, egindako lanagaz eta lorturiko emaitzagaz gaude gustura. Jendearen aldetik ere erantzun positiboa heldu zaigu.

Andu Moreno: Grabazioa amaitzean, jada pozik geunden genuekanagaz, eta, azken finean,

horixe bilatzen genuen, gustura geratzea lanagaz.

Aitor Ariñogaz grabatu duzue, Lorentzo Recordsen.

A. M.: Aurreko lanagaz alderatuta, aurrerapauso bat eman gura genuen; kalitate aldetik ere, aldaketa hori egin gura genuen. Ahal zen moduan grabatu genuen aurrekoa, lokalean, gaztetxean, eta pandemiak ere

tarteko harrapatu gintuen, baina naturala zen hori horrela egitea, eta bide honetan asko ikasi dugu. Urte gehiago darmatzagu, eta, hobeto edo okerrago egin, ikasten gabiltza. Hasieran, baliabiderik barik eta inguruko jendeagaz grabatu genuen, eta oraingoa beste esperientzia bat izan da. Askotan, buruan duzun hori errealitatean islatzea da gaxena, eta Aitorrek asko lagundu digu horretan.

M. C.: Horrela egiteak, gainera, beste exijentzia maila bat eskatzen dio taldeari, gauzak hobeto prestatzeko, eta lantzeko. Hurrengorako ere badugu zer hobetu, baina esperientzia guztietatik ikasten da. Hala ere, esango nuke positiboa izan zela lehenengo diskoa grabatu genuen moduan grabatzea. Alde batetik, bigarrenagaz errazagoa izango da hobetzea (barrez), eta bigarrenik, zeure kabuz eginda asko ikasi dezakezulako.

Punk, rock eta oi! doinuei eutsi diezue.

M. C.: Ezeri ere ez diogu aterik itxi, baina aldatu ere ez gara egin; aurrekoaren sokatik joan da dena.

A. M.: Kantak sortzerakoan ere, prozesu desberdinak ditugu, eta abestietan igarri egiten da hori. Kantak desberdinak dira euren artean; batzuek distortsio gehiago dute, edo baxuak lerro nabariagoak ditu. Beste batzuetan erritmoak melodikoagoak dira. Ez dugu mugarik ipintzen, eta lokalean musikak berak eramaten gaitu. Gitarra riffak bidaltzen dizkiogu elkarri, baita abestietako hitzak ere, eta ziriborro horiek lokalean garatzen ditugu gero. Bertan ematen diegu forma. **Zapatuan Arrasaten aurkeztuko duzue lana. Gogotsu?**

A. M.: Pandemiaren ondoren,

kontzertu bakarra eman dugu, arrazoi desberdinengaitik, eta oso gogotsu gaude. Rebel Noise taldeko lagunek diskoa elkarrengaz aurkezteko aukera eskaini ziguten, eta oso aukera polita iruditzen zaigu. Gainera, gaztete batean aurkeztea garrantzitsua da guretzat, horrelako espazioak aldarrikatzeko eta lagunekin jo ahal izateko.

Diskoan kontrakulturaren garrantzia ere aipatzen duzue.

M. C.: Bulegoek manejatzen dituzten guneetatik kanpora badago oso bizirik dagoen musika eszena bat, eta zapatukoa horren erakusle da: hainbat gazte talde gune autogestionatu batean kontzertua ematen.

Aimar Sainz de Murieta: Abestietako letrak hortik doaz neurri batean. Jendea pizteko gogoa dugu, hemen jarraitzen dugula esateko gogoa.

Batzuek diote gazteek ez dutela gustuko punka.

A. S.: Lehen baino punk talde gutxiago egongo da beharbada, baina horrek ez du esan gura ez dagoenik.

A. M.: Urteak pasatu ahala, doinu eta gustu berriak agertzen dira. Rock eta punk doinuek indar handia zuten lehen, eta gaur egun reggaettoa eta doinu elektronikoak dira nagusi. Hala ere, talde txiki asko daude egundoko lana egiten dutenak baina dena delakoagaitik ez direnak rengana heltzen.

'GURE HAUTUA' PLATAFORMA DIGIALETAN ETA CD FORMATUAN ENTZUN DAITEKE

SOINUA MUSIKA IKASTEGIA
Matrikula zabalik!

Estimulazio musikala
4 urtetik aurrera eta talde txikietan

PIANOA, AKORDEOIA, TRIKITIA, GITARRA,
KORUA

Kalebarrria, 1 - 1 Durango
946 030 338 - soinua@euskalnet.net

Emakume baten borroka eta metamorfosisa
Tanttaka

Irailak 21, zapatua
19:00etan, Antzerkia

San Agustinak
KULTUR GUNEA

San Agustinak, 12 - Tel: 946 030 021 - sanagustin@durango.eus

'BBK Herriz Herri' Durangon irailean zehar

Ekimen ibiltariak Durangon egingo dituen jardueren berri eman dute asteon; irailaren 10etik 26ra bitartean, hainbat jarduera egingo dute; ekimenaren bigarren edizioa da hau, eta aurretik Bizkaiko 52 herri bisitatu ditu

Aritz Maldonado DURANGO

'BBK Herriz Herri' ekimen ibiltariak Durangon hasiko du bigarren edizioa. Aurretik, beste 52 herritan egon da eta "oso harrera ona" izan du, Verónica Urda proiektuaren arduradunaren berbetan. "Funtsezkoa da adinekoen bakardadea, eten digitala eta txikienak 2030 Agenda balioetan hezte gure kezken erdigunean egotea", azaldu zuen aurkezpenean Jessica Ruiz Durangoko lehen alkateordeak.

Irailaren 10etik 26ra bitartean, hainbat jarduera antolatu dute Durangon. Besteak beste, *Bakardade ikusezina* erakusketa egongo da San Agustin kultur-gunean; erakusketaren ardatz nagusia Mercedes eskultura hiperrealista da. Horrez gainera, irailaren 26an *Bakardadeari ahotsa jarriz* kafe-solasaldia egingo dute San Agustinen; 18:00etan hasiko da, eta parte hartu gura dutenek izena eman beharko dute aurretik.



'Mercedes' eskultura hiperrealista.



Salmenta solidariorako lanak.

DAEko kideen erakusketa kolektiboa ikusgai asteburuan

Durungaldeko Artisten Elkarteko Rosa Maria Sanchez kideak formatu txikiko sei obra eman ditu dohaintzan

A. M. DURANGO

Durungaldeko Elkarte Artistikoak erakusketa kolektiboa antolatu du beste behin. Bertan, elkarteko hainbat kideren 38 obra ikusi daitezke. Artelanak estilo eta teknika desberdinetakoak dira. Horietako sei dohaintzan eman ditu Rosa Maria Sanchez artistak; bildutako dirua ASARGA elkarteari emango dio, sarkomaren aurkako ikerketa babesteko asmoz. Edizio hone-tako erakusketarako aukeraturiko gaia natura izan da, "bizitzen dugun krisi garai honetan zaindu, ezagutarazi eta sustatu behar

den altxorra" delako elkarteko kideen berbetan.

Durango Uria

Bestalde, Durango Uria XXIV. pintura lehiaketarako lanak aurkezteko epea irailaren 17an hasiko dela gogoratu du DAEk; 18 urtetik gorako herritarrek parte hartu dezakete, eta lanak urriaren 6a baino lehenago aurkeztu beharko dituzte. Aurkezten dituzten lanik onenekin erakusketa egingo dute urriaren 11tik 20ra bitartean; hain zuzen ere, egun horretan egingo dute sari banaketa ekitaldia, 13:00etan.



GAI LIBREAN

GARAZI ARRIZABALAGA CABRERIZO DURANGOKO MUSEOKO ZUZENDARIA

Mila esker, Jon.

Nire azken 20 zutabeetan emakume isilarazien ahotsen bozgorailua izan naiz eta ez dut lan honekin amaituko; izan ere, tamalez, oraindik ere emakume askori eman behar zaie ahotsa.

Baina, gaurkoan, "eskerrik asko" handi bat publiko egiteko erabili nahi dut nire ahotsa. Eman dezake denboraz kanpo nabilela, baina, egia esan, hartzaileak askotan entzun du hitz hori nire ahotik. Izan ere, Jon Irazabalek nire esker ona izan du beti. Oraindik gogoan dut museoan lanean hasi berria nintzenean nire bulegora etorri zenekoa. Hasieran urduritu egiten nintzen bere aurrean, Historia ikasi dugunontzat Durungaldeko historia hobekien ezagutzen duen pertsona aurrean izatea ez da eta ahuntzaren gauerdiko eztula. Baina hasieran pentsatu nezakeenaren kontra, pertsona hurbila eta eskuzabala izan da beti Jon.

Lehenengo bisita horren ondoren beste asko egon dira. Bere efemerideak jasotzen nituen (genituen Du-

GAURKOAN NIRE AHOTSA ERABILI NAHI DUT 'ESKERRIK ASKO' HANDI BAT PUBLIKO EGITEKO

JON IRABAZABALEN LANARI ETA ESKUZABALTASUNARI ESKER HOBETO EZAGUTZEN DUGU DURANGALDEKO HISTORIA

rangaldeko askok) whatsappetik, Durungaldeko istorioei buruz. Egunkari zaharrak ekartzen zituen museora Durangoko berriekin. Durangoko Udalak hasitako indusketa bakoitzean nire bulegoan izaten zen bera, informazioa eskatuz eta informazioa emanez. Behin betiko erakusketa eraikitzen lagundu dit, bere hitzekin eta objektuekin. Telefono deiak jaso ditut "egun on, neskatila" batez hasita, eta gero zerbait eskainiz.

Jon Irazabal ez zen historialaria ikasketaz, baina bai bihotzez, eta bere lan nekazinari esker Durungaldeko Historia hobeto ezagutzen dugu gaur. Bere lanari esker, eta, esan bezala, bere eskuzabaltasunari esker. 2016ko abenduan, ni museoan lanean hasi eta hilabete batzuetara, Anboto aldirikariko zutabe hau erabili zuen hitz hauek idazteko: "Animo, Garazi, esku bat baino gehiago dituzu laguntzeko prest." Argi daukat Jonen eskuak beti izan ditudala laguntzako prest. Bihotzez eskertzen dizut, Jon, bidelagun izan zaitudalako.

Sorginen Lasterketa, Urkiola Koparen hasiera

MENDI LASTERKETA Sorginen Lasterketak 17. aldia egingo du zapatuan. Urkiola Kopa berriko hiru hitzorduetako lehenengoa da. Mañaritik Atxetara (22 km) eta Aramotz dira beste biak. ANBOTOk zuzenean emango du proba, 'www.anboto.org' webgunean



Iazko Sorginen Lasterketan korrikalari bat Artolan gora, zaleen animo artean.

Joseba Derteano ATXONDO

Sorginen Lasterketa ate joka dator. Zapatu honetan 17. aldia egingo du eta nobedade batez dator: Urkiola Kopa berriko lehenengo proba izango da.

Eskualdeko hiru mendi lasterketak osatzen dute Urkiola Kopa: Sorginen Lasterketak, Mañaritik Atxetara probak (22 kilometrokoa, irailak 21) eta Aramotz mendi lasterketak (urriak 6). Hirurak Urkiolako Parke Naturaletik pasatzen dira. Hiru lasterketetan bildutako puntuak gehituko dira eta batura osoak emandako emaitzetik lehenengo hiru sailkatuak sari-tuko dituzte emakumezkoen eta gizonezkoen kategorietan. Kopako sari banaketa Aramotz mendi lasterketaren sari banaketagaz batera egingo dute. Kopako irabazleak 300 euro jasoko ditu, bigarrenak 200 euro eta hirugarrenak 100 euro.

Sorginen Lasterketako ibilbideari dagokionez, azken edizioetako berari eutsiko diote: 21 kilometro eta 1.700 metroko desnibel positiboa dituen ibilbidea. Korrikalariak 09:00etan irtengo dira, Axpeko plazatik. Zabalandi, Pagozelai, Asuntza eta Artolatik ibiliko dira.

Faboritoak

Urtero legez, izen ematea bete egin da eta 350 parte hartzaile batuko dira. Faboritoen artean, hainbat izen nabarmendu daiteke. Emakumeetan, Lide Urres-

tarazu iazko txapelduna berriro irabazten ahaleginduko da. 25 urteko ordiziarrek munduko kopako proba bat irabazi zuen otsailean. Seguruenik, Irati Zubizarreta eta June Villarroel izango ditu aurkari nagusiak. Gizonetan, otxandiar bi daude hautagai nagusien artean: Aitor Ajuria —2021eko irabazlea— eta Markel Urigoitia. Antolatzaileek Irazu Aranburu berriztarraren

LIDE URRESTARAZU IAZKO TXAPELDUNA BERRIRO IRABAZTEN AHALEGINDUKO DA

izena ere aipatu dute. Eurekin batera, Paul Ormaetxea eta Asier Azkarate korrikalariak ere kontuan hartu behar dira. Sorginen Lasterketa hiru bider irabazi duen Gontzal Murgoitio elorriarrak aurten ez du parte hartuko.

Zuzeneko emankizuna

Antolatzaileek lasterketa zuzenean emango dute Twitch plataformaren bitartez. Emankizuna www.anboto.org webgunean ere jarraitu ahal izango da, 09:00etatik aurrera. Oier Ariznabarreta korrikalari durangarrak esatari lanak egingo ditu berriro. Beragaz batera, Ainara Urrutia korrikalari aretxabale-tarra ere arituko da esatari zuzenean.

Eskualdeko lau ordezkari aurtengo Olazar txapelketan

ESKUPILOTA Gontzal Azkarraga-Urizar, Koldo Bikandi, Aingeru Bernaola eta Faben Ituarte arituko dira

J.D. ZALDIBAR

Olazar pilota txapelketa irailaren 19an hasiko da, datorren asteko egunean. Iaz legez, aurten ere goi mailako promesak batuko dira Zaldibarko pilotalekuan, eta euretariko lau eskualdekoak dira: Aingeru Bernaola mañarriarra, Koldo Bikandi iurretarra, Gontzal Azkarraga-Urizar elorriarra eta Faben Ituarte atxondarra. Azkarraga-Urizarrek datorren eguneko lehenengo jardunaldian jokatu du. Munitibarko Aimar Okamika aurrelariagaz osatuko du bikotea;

Iker eta Unai Amiano anaia irundarrak izango dituzte aurrez aurre. Biak ezkerak dira eta sasoiak daude. Esaterako, Unai Amianok 22 urtez azpiko munduko txapelketa irabazi zuen orain astebete, Carmelo Lozagaz batera, finalean Mexikoko bikotea mendean hartuta.

Olazarreko partidua egunero jokatuko dira, 21:00etan hasita. Aurreko aldiako ordutegia ordu erdi aurreratuta. Jardunaldi bakoitzean, lau eta erdiko eta binakako partidua bana jokatu dute.

Emakumeen lau eta erdiko txapelketa bat ere egongo da, baina abenduan hasiko da, finalerdiekin. Gizonen eta emakumeen final guztiak abenduan 31n jokatu dira, tradizioari eutsita.

Final-laurdenetatik aurrerako jardunaldi guztiak zuzenean emango dituzte euren youtube kanalean, eta www.anboto.org webgunearen bitartez ere jarraitu ahal izango dira, eguen iluntzero.

FINAL-LAUDENETATIK AURRERAKO PARTIDUAK ZUZENEAN EMANGO DIRA 'ANBOTO.ORG'-EN



Zaldibarko Olazar pilotalekuak hartuko du txapelketa.

Ainhize Belarrek historia egin du Baltzolan

ESKALADA Eskalatzaile atxondarrak 'Iñi Ameriketan' (9a+) bidea kateatu du; zailtasun horretako bide bat egiten duen bigarren euskal emakumea da

Joseba Derteano ATXONDO

Ainhize Belar (Atxondo, 2006) eskaladaren gailurrera heldu da. Orainsu 9a+ graduko *Iñi Ameriketan* bidea kateatu du Baltzolan, Diman, eta marka berri bat ipini du: bide hori kateatzen duen lehenengo emakumea bihurtu da, 18 urtegeaz. Beste euskaldun baten marka berdindu du zailtasun horretako bide bat kateatzen: 2005ean Josune Bereziartuk lortu zuena. Belarren aurreko marka 9a mailako igoera bat zen, iazko maiatzean Etxaurin lorturikoa.

Iñi Ameriketan aspalditik buruan zuen bidea da. Otsailean probatu zuen lehenengoz. Apirilerako "puntu-puntu" zuen igoera, baina eguraldiak ez zuen lagundu. Maiatzean eta ekainean, behin betiko saiakera egiteko prest zegoela, busti aurkitu zuen

bidea. Beraz, uda osterara arte itxaron behar izan du. "Pozarren" dago lorpenagaz, baina oraindino ez du guztiz barneratu. "Oraindino ez dut sinesten. Asimilatzen nago", adierazi du. Aurrera begira, arrokari "topera" jarraitzeko asmoa du. Txapelketak baztertu barik, arrokari eman-godio "lehenetasuna". Katalunian munduan ezagunak diren bide batzuk ditu jomugan.

Iñigo Basterrak ekipatu eta Rikar Otegik 2002an lehenengoz eskalatutako *Iñi Ameriketan* bide historikoa da. Eskalatzaile gutxi batzuek baino ez dute lortu bide hau kateatzeko erronka. Otegiren ondoren, Patxi Usobiagak, Adam Ondra txekiarrak eta Iban Larrionek kateatu duten bidea da. Zerrenda horretan, Ainhize Belarrek bere lekua irabazi du.



Ainhize Belar Baltzolan, 'Iñi Ameriketan' bidea igotzen. @HYPERAITZ



Bidea egitera joan zen bigarren egunean lortu zuen igoera. @HYPERAITZ



JOKALDIA

DANI NUÑEZ MORALES KICKBOXING ETA BOXEOA

Boxeoari atea zabalik

Arte martzialak eta boxeo maite ditugunontzako garai politak dira. Gure kirol askok, boxeo, Muay Thai, K1, BJJ (Brazilian Jiu Jitsu) eta MMA (arte martzial mistoa) modalitateek, batez ere, gorakada nabarmena izan dute azken urteetan. Kirol hauen momentu on bat bizi dugu bai European eta baita, geurera ekarrita, Durangaldean ere.

Orain eskualdean arte martzialak eta borroka praktikatzeko askotariko gimnasioak daude, oso lan ona egiten duten irakasle profesionalekin eta ikasteko gogotsu dauden kirolari amateur nahiz profesionalekin. Eta kantitatea kalitatean islatzen da. Lizentzietan izan den hazkundera lotuta dago Euskal Herriko zein Espainiar estatuko konpetizio mailan izan den gorakada.

Niretzako, guretzako, denboraldi berria beti da ilusionagarria, baina gorago aipatu dudanarekin eta joan zen denboraldiko emaitza onekin, esan barik doa benetan gogotsu eta pilak kargatuta gaudela ikasturte

berrirako. Izan ere, Euskadiko eta Espainiako txapelketetako garaipen askorekin amaitu genuen denboraldia, eta baita kickboxing eta boxeo gaubeletan eskuratutako hainbat lorpenekin ere. Dena ez da garaipena, ordea, batutako esperientzia ere hor dago: irabazi ala galdu, beti ikasten da ikasgairan bat, eta borrokaldi gogorretan errazetan baino gehiago ikasten da.

NOBEDADE MODUAN BOXEO IKASTAROA ESKAINIKO DUGU. AZKEN BATEAN, ESKUALDEAN BETIDANIK EGON DA KIROL HONEKIKO ZALETASUNA

Ikasturte berriari begira, interesa duten denei tokia egitea ez da erraza. Taldeak eta ordutegiak handitu behar izan ditugu Elorrion, Berrizen eta Durangon ditugun eskoletan. Lepo gaude. 'Arazo bedekintua!' pentsatuko du irakurle batek baino gehiagok, eta ez zaio arrazoirik falta. Aurrerantzean ere izan dadila horixe gure buruhauste nagusia.

Nobedade moduan, aurtan Elorrioko Indar Xsport kirol taldean boxeoko Ikastaroa eskainiko dugu. Durangon igoera handia izan du boxeoak eta Elorrioko biztanleriari ere atea ireki gura diogu. Azken batean, Durangaldean betidanik egon da kirol honekiko zale-tasuna. Gainera gogoratu behar da kirol olinpikoa dela boxeo. Saiok astearteetan eta ostegunetan izango dira, 18:30ean hasita. Irail osoan ate irekien jardunaldiak egingo ditugu, interesatuek kirola eta gure klaseak ezagutu ditzaten. Hurreratu, esku zabalik hartuko zaituztegu!

KOMIKI TIRA

UNAI GAZTELUMENDI



GUARDIAKO BOTIKAK

IRAILAK 13

09:00-09:00

Irigoien, Bixente Kapanaga 3 - Iurretza

Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza

IRAILAK 14

09:00-09:00

Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

IRAILAK 15

09:00-09:00

Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

IRAILAK 16

09:00-09:00

Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

IRAILAK 17

09:00-09:00

Navarro, Artekalea 6 - Durango

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

IRAILAK 18

09:00-09:00

Etxebarria, Montevideo etorb. 2. - Durango

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

IRAILAK 19

09:00-09:00

Bazan, Uribarri 5 - Durango

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

24 orduz zabalik dauden farmaziak daude zerrendan.

22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: www.anboto.org/botikak

ZORION AGURRAK



GOZATU GOZOTEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663 / 661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
f Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia



DURANGO

Jon Areitio Pascual

Irailaren 14an, 12 urte. Zorionak, txapeldun! Mutil koskorra badoa pilotari handi bihurtzen. Ondo ospatu urtebetetzea eta izan zorionsu! Ikaragarri maite zaitugu danok!

ZALDIBAR

Aitzol Abin

Abuztuaren 2an, 6 urte. Abuztuaren 2an Aitzol Abin zaldibartarrak 6 urte egin zituen. Zorionak gurasoen, Oierren eta aitite Valentín eta amama Mari Carmenen partez, Errioxatik. Muxu pilo bat!

**Roberto**

Irailaren 7an, 64 urte. Zorionak, Roberto, zure kuadrilla eta familiaren partez. Ondo pasa.

Urte askotarako!

Zorionak Natali (990.alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan.

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta Anboto.org/zorionagurrak helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@anboto.org helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Anbotoren ordezkarietara edo deitu 946 232 523 telefonora.



19:00 20 **BIZI BERRIZ JAIA** 24

IRAILAK

21 **DOAN 18:00**


Kiki, Koko eta Moko PAILAZOAK
"Txondatxondai Dibertsio eta Jai"

OLAKUETA PLAZAN
(FRONTOLAN)

Informazio gehiago: www.berrizkometerkari.eus

f berrizkometerkari.karte
@berrizkometerkari.karte
www.berrizkometerkari.eus

Logo for Berrizko Plazan and other sponsors.



BERRIZKO AGENDA KULTURALA

Zinema, Memoria eta Giza eskubideen zikloa
Azken festa (Eskolako patioa)
Art-Ilusio - Markeliñe (Eskolako patioa)

Irailak 13, 18:30
Irailak 19, 17:00
Irailak 26, 17:00

Programazioa

HOME SCHMIDT HOME



Schmidt-en eskutik
etxe osoa

BARRIZTU
BARNE DISEINUA

C.C. Eroski 48220 Abadiño · Tel. 946 526 195
Hartu hitz ordua www.home-design.schmidt





Jon Irazabali

Kaixo, Jon. Aurrekoan bidali nizun mezua erantzun barik laga zenuenez, gogoratzearen: Dragonos batailoi-ko L.Z., Elorrio inguruko frentean eroria, badakizu nor izan zitekeen? Zauden lekuan zaudela, suposatzen dut paper artean galduta ibiliko zarela, pertsonaje, efemeride edo argazki historikoren baten peskizan. Pentsatzen dut gaur ere egunkariak errepasatuko zenituela, Durangerrira zelan dabilen jakiteko. Imajinatzen dut horko artxiboaren ardura eman dizutela, eta armairu artean pasatzen dituzula orduak. Hemen, joan zirenen istorioak jasotzen trebea zinen; agian, zure leku berrian, gure arte-rik helduko direnak aztertzen hasi zara, gure datuekin etorkizunerako fitxajeak egiten. Seguru notizia bitxiak idazten zabiltzazala, Zerupe edo antzerako tituluren bat duen aldizkariaren batean; dagoeneko mareatuko zenituen lankide berriak. Akaso, zure bizilagunen artean galdezka ibili zara, hemen zabaldu zenituen ikerketa ugarien inguruan datu gehiago batzeko asmoz. Zeozertaz enteratzen bazara, abisatu seinaleren batez, mesedez.

Zuk urte luzetan eginiko lan guztiari eskerrak, askoz gehiago daki-gu herri honen historiaz eta kulturaz. Jakin-mina zuten kazetari, historialari eta herritarrentzat, informazio iturri amaigabea izan zara. Orain, iluntzean, ardo zuri bat hartzen egongo zara historiaren tabernan, telefonotik gertu dagoen izkinan jarrita, zerbitzariarekin kontu kontari. Eta, guk, telefono interdimensional bat instalatu beharko dugu kiputxenean, zalan-zalaren bat dugunean zeuri deitu ahal izateko.

AKUILUA

"Errusian, bezero batek berak ehizatutako hartz bategaz hegan egin zuen"

ARANTZAZU BEITIA SAGASTIZABAL HEGAZKINEKO ZERBITZARIA

Arantzasu Beitia (Elorrio, 1991) jet pribatuetako zerbitzaria izan da. 2022tik bidaia agentzia batean dabil lanean, eta oraindik hegan egitearen falta igartzen du

Aitziber Basauri DURANGO

EHUn Arteetan lizentziatu ondoren, Arantzasu Beitia hegazkinekoko zerbitzari izateko ikasketak egin zituen, Sevillan (Espainia). Lehen hegaldia 2016an egin zuen, CanaryFly airelineagaz. Air Nostrum eta Swift Air konpainiekin ere lan egin zuen, 2020an Wakaf Air airelineagaz jet pribatuetan hasi aurretik.

Zelakoak dira hegaldi pribatuak?

Hawker 800 XP hegazkinean lan egin du. Lau jesarleku ditu, sofa bat, ohea... Kapritxo bat gura izanez gero, 2.000 eurogaitik ordu erdiko hegaldia duzu. Zerbait berezia egiteko, despedida baterako... alokatu daiteke. Broker batek zerbitzua kudeatu eta prezioa negoziatzen du.

Famatuekin ere hegan egin duzu?

Bai! (barrez) Futbolari askogaz (Tebas, Varane, Dembélé, Griezmann...) eta zenbait politikari eta artistekin ere bai. Behin, Londrestik (Erresuma Batua) Donostiara pintore ezagun bat ekarri genuen.

Zerk eraman zintuen hegazkinekoko laguntzaile izatera?

Askok mugitzekoa naiz. Gainera, aitaren lehengusu bat pilotua



da eta askotan ikusten nuen. Bakarrik bidaiatzen hasi nintzen, eta gero, bidaiatzeko grina egunerokotasunagaz zelan bateratu pentsatu, eta horrela erabaki nuen laguntzaile izatea.

Hainbat herrialdetan ibili zara, baina ezagutu dituzu leku horiek?

Bai. Errusiara askotan joan naiz;

bezerorik gehienak errusiarrak ziren. Afrikan eta Europan ere asko ibili naiz. Frantzia eta Suitza, adibidez, hegaldi pribatu asko egoten da. Enpresa bidaiak nituen gogoko. Dena oso lotuta zegoen, buelta ere bai. Eta izan zitekeen astebete egotea toki batean. Baina, beste batzue-

tan, tentsio uneak ere bizi izan ditut. Milanera (Italia) erosketak egitera joandako bezeroa noiz bueltatuko zen ez genekien. Gertatu zitekeen 03:00etan deitzea, eta momentuan kudeatu behar izatea dena: cateringa, xanpaina...

Kapritxo asko dute bezeroek?

Batzuk oso hurbilekoak eta umilak dira, ez dute molestatu gura. Eta beste batzuk oso bereziak dira. Hegazkinean denerik eraman dugu: surf-oholak, koadroak... Errusian, bezero batek berak ehizatutako hartz bategaz hegan egin zuen. Israelen igotako beste batek errezatzen egin zuen 2-3 orduko ia hegaldi osoa, ezer eskatu barik.

Orain bidaia agentzia batean zaude.

Ukrainako gerragaz eten bat egon zen. Ezin genuen hango aire espazioa zeharkatu, eta asko jaitsi ziren lana. Euskal Herrira bueltatu nintzen. Ez zen erabaki erraza izan. Sektorean lan egiteko aukerak ditudan arren, hegaldi pribatuetan ibili eta gero gatx da komertzialetara bueltatzea. Baldintzak beste era batekoak dira eta azafata lana ez da oso bateragarria bizitza pertsonal egonkor batez. Hoteletan bizi izan naiz, maleta batez. Egun bat Errusian, bestea Afrikan... edo azken momentura arte nora noan jakin barik.

Hala ere, horren falta igartzen duzu?


Denbora askoan zaude bakarrik, eta tentsio uneak daude. Estres handia da, bezeroari erantzun egin behar zaiolako, eta batzuetan ez da erraza. Baina zirrara horren falta igartzen dut, bai.

Norako hegazkina hartuko zenuke?

Zeelanda Berrirakoa, inoiz ere ez naiz egon eta. Txina eta Japonia ingurura ere bai. Banabil hegaldiak begiratzen (barrez).

DURANGO

SAN ROKE BARRIA



Bilatzen zenuen aukera.

Etxebizitza modernoak kokapen bikainean.

2 logela:

249.000€ -tik aurrera + BEZa

Garaje itxia eta trastelekua barne.

3 logela:

314.000€ -tik aurrera + BEZa

Garaje itxia eta trastelekua barne.

Zure hitzarmena eskatu:

sukia.com

edo deitu izezaguz:

946 462 041

 **sukia**
Zure etxean zaude. Estás en tu casa